

Hizlaria

Iziar Basterretxea Moreno
Soziologian Doktore



**"Etorkizuna
ez du inork
ezagutzen,
guk geuk eraiki
behar dugu...
horretarako
gai bagara."**

GIZARTE HARREMANAK

Oroimen Kolektiboaren Berreskurapenari buruzko 7. eztabaida foro honetan Gizarte Harremanak lantzen dituzten atalak aztertzen ditugu, Iziar Basterretxearen laguntzaz.

Berehizketaldia hasibainolehen, lanaren baliozkotze asmoa goستن du, iritzi guztiak kontutan hartzeko asmoa, nahiz eta denak barne hartzea ezinezkoa izan, zeren, Iziarrek dioen moduan, "errealitatea poliedrikoa da eta ezin du inork ikuspuntu guztiak hartu".

Lanaren balidazio orokorra

Bere liburuarekiko iritzia oso positiboa da, bereziki, lan handia egin eta informazio asko bildu dela uste duelako. Levi Strauss aipatzen du (antropologo frantziarra) datuen bilketa dela eta: beharrezkoa da ahalik eta datu gehien biltzea, bizi ditugun aldaketa prozesu arinek desagerrarazi baino lehen. Nahiz eta argitalpena zatika eman, bilketa hutsa berebizikoa iruditzen zaio. Bere ustez, errealitate haren deskribapen ona da. Irakurketak ematen dizkion ustekabeak gustatzen zaizkio.

Azkenik, lanaren elkartasun gaitasuna goraipatzen du, batasun kontzientzia hau garrantzitsua baita etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Berriz ere lana asko gustatu zaiola azpimarratzen du "xehetasun txikiak" deitzen dituenak aipatu baino lehen. Alde batetik, argazkien datak ezagutzea gustatuko litzaiokeela dio. Bestetik, Francoren garaiak Trantsizioak baino pisu gehiago izatea tamalgarria deritzo, baina istoriorik zaharrenak, hauek euren protagonistekin desagertu baino lehen, biltzea eta kontatzea ulergarria iruditzen zaio. Berriz ere esaten du ezinezkoa dela bildutako informazio guztia lanean barneratzea, baina hor dagoela etorkizunean lan gehiago egiteko.

Prozesu sozialak

Laudion, industrializazioa bizi izan zuten beste herrietan bezala, komunitateak gizartera pasatu zen, lehen mailako harremanetatik bigarren mailakoetara pasatu zen: adituen ustez pausu hau gizarte premodernotik gizarte modernora ematen dena da. Gizarte premodernotik garapen teknologiko eskasa dago eta komunitateak gizabanakoak baino garrantzi handiagoa dauka. Harremanak estuagoak dira eta komunitateak gizabanakoarengan lehentasuna dauka. Bere ustez, pausu hau oso ondo islatzen da liburuan eta honi buruz hitz egiten duten zatiak aipatzen ditu.

Bestalde, gizarteko alor ezberdinen arteko elkarlotura nabarmentzen du: etorkinen helduera dela eta, gizartea hauen beharrei (etxebizitza, zerbitzuak...) erantzuna emateko prestatu behar da. Berrito ere esaten du zeinen ondo islatu den gai hau liburuan eta zenbat gustatu



zaion.

Ondorio eta proposamenak

Etorkizunean sortuko diren erronkei aurre egiteko, liburuko azken atalean agertzen direnak, liziarrek honako aholkuak ematen ditu: "Laudiok bereiztuko duen berezitasuna bilatu beharko luke. Industria ezin da lehengo moduan ikusi, era sortzaile batez erantzun behar dugu."

"Etorkizuna ez du inork ezagutzen, guk geuk eraiki behar dugu... horretarako gai bagara."

JENDEAREN PARTE HARTZEA

Gizon batek lana berezia dela dio, audioarren testigantzen bidez egina dagoelako eta hauek lanaren ardatza direlako. Giza osagai horrek bereizten du, ohiko literatur edo historia lanengandik aldentuz. Gonbidatua iritzi honekin bat dator eta testigantzek, bizipenek kontatzen denarekin lotura sortzen dutela dio.

Hainbat gai proposatzen ditu azterketa sakonagoak egiteko, horretarako materiala baitago: Gizon eta emakumeen eginkizunak, zinema... Berriro ere lanean jarraitzeko garrantziaz hitz egiten da eta, aurreko lanaren eredu gisa, Amalur Fundazioa aipatzen da.

Etorkizunak ekarriko dituen erronkei buruz hitz egiten, batez ere gizarteak geroari aurre egiteko daukan gaitasunaz, eztabaida bukatutzat emango da.